

HIZKUNTZA ISOLATUAK

Maddi Gartzia Etxaluze

2015 / 2016

GRADUA: EUSKAL IKASKETAK

TUTOREA: MIREN ITZIAR LAKA MUGARZA

HIZKUNTZALARITZA OROKORRA SAILA

AURKIBIDEA

LABURPENA	1
1. SARRERA: ZER DIRA HIZKUNTZA ISOLATUAK?.....	2
2. ZENBAT HIZKUNTZA ISOLATU DAUDE?	5
3. HIZKUNTZA ISOLATU EZAGUNENAK.....	9
3.1. Ainu hizkuntza	10
3.2. Burushaskia	12
3.3. Isolatu berezi mota bat: keinu hizkuntza berriak	14
4. EUSKARA	16
4.1. Euskararen ahaideen bila	16
4.2. Euskara hizkuntza isolatua ote?	20
5. ONDORIOAK	22
6. AIPATUTAKO BIBLIOGRAFIA	25
7. ERANSKINAK	30

LABURPENA

Lan honetan hizkuntza isolatuen inguruko ikuspegi orokor bat eskaintzen dut. *Hizkuntza isolatua* izatea zer den zehaztetik hasi eta munduko hizkuntza isolatu ezagunenekin egin diren zenbait ikerketa aipatzen ditut. Kontzeptua zehazteko, gaian aditua den Campbell hizkuntzalariaren 2011.eko “La investigación histórica de las lenguas aisladas, o ¿es raro el vasco?” artikulua hartu dut ardatz.

Ethnologuek (2015) aipatzen dituen bizirik dauden munduko hizkuntza isolatuak kontinenteka aurkezten ditut taula batean. Ondoren, hizkuntza isolatuen inguruko oinarritzko nozioak ematen ditut. Hizkuntza isolatu ezagunenenei buruzko zenbait ikerketa aipatzen ditut eta horien isolatutasunaren arrazoiak aztertzen ditut. Eztabaidatzen ditudan ikerketa guztiak, metodo konparatzailea erabiliaz hizkuntza isolatuei senideak bilatzeko egin diren saiakerak dira.

Lehenengo, japoniar irletan hitz egiten den ainu hizkuntza izango dut mintzagai, Patrie (1982) eta Shibatani (1990) lanetan oinarrituz. Ainu hizkuntzaren jatorri genetikoaren inguruan hipotesi indo-europea (hemendik aurrera IE), austroasiera, paleosiberikoa eta hipotesi altaikoa aipatzen ditut, hurrenez hurren.

Bigarren, Pakistan iparraldean hitz egiten den burushaski hizkuntzaren inguruko informazioa aurkeztuko dut, Alonso de la Fuente (2006) iturri gisa erabilita. Besteak beste, burushaskiren senideak dene-kaukasiera hizkuntza familia eta IE ote diren defendatzen duten hipotesiak aztertuko ditut.

Atal honetako hirugarren puntuan, sortu berriak diren hizkuntza batzuez dihardut. Besteak beste *pidgin* eta *kreoleren* inguruan, bai eta Nikaraguako keinu hizkuntzaren inguruan mintzo naiz. Asmatutako hizkuntzak diren heinean, isolatu talde berezi bat osatzen dute. Nikaraguako keinu hizkuntzaren gaineko informazioa Ann Senghas hizkuntzalariaren 1995 eta 2004ko artikuluetatik hartu dut, bera baita gai honetan aditua eta azkeneko urteetan keinu hizkuntzen inguruko ikerketak egiten ibili dena.

Laugarren atalerako, euskara hartu dut ardatz. Gure hizkuntza denez, atal oso bat eskaini nahi izan diot, euskararen isolatutasunaren inguruan egon diren ikerketak eta eztabaidak bilduz. Horretarako Trask (1995) lanean oinarritu naiz. Hurrenez hurren,

Venneman (1994) hizkuntzalariak garatutako “euopera zaharra”-ren hipotesia, baskoiberismoarena, Afrika iparraldeko hizkuntzen hipotesia, Kaukasoko hizkuntzena eta euskara eta Akitaniera senideak direla defendatzen duen hipotesia aipatzen ditut.

Amaitzeko, ainu, burushaski eta euskarari senideak bilatzeko egin diren ikerketa edota saiakeretan erabilitako metodo konparatzaileaz egin den erabilera eztabaidatzen dut. Hizkuntza isolatu hauei ahaideak bilatzeko saiakerak ugari izan arren, metodo konparatzailea gaizki erabili izan dela argudiatzen dut, eta beraz, momentuz bai ainuak, bai burushaskiak, bai euskarak isolatu jarraitzen dutela defendatzen dut. Hala ere, berriro Campbell (2011) artikuluan oinarrituz, hizkuntza isolatu hauei senideak bilatzea ezinezkoa ez dela deritzot, baldin eta metodoak behar bezala erabiltzen badira.

1. SARRERA: ZER DIRA HIZKUNTZA ISOLATUAK?

Munduko hizkuntzak ikertu nahian, hizkuntzalarien zereginetako bat hizkuntzen sailkapena egitea izan da. Hizkuntzak taldekatzeko irizpide bat jatorri genetikoaren arabera da. Hau da, hizkuntzen antzinako forma komuna berreraikitzen da hizkuntzen artean antzekoak diren formak konparatuz eta jatorri komun horren arabera, hizkuntza talde edo familiak osatzen dira (Meillet, 1925). Hizkuntzak jatorri genetikoaren arabera sailkatzea ez da erraza eta zeregin horretarako erabiltzen diren irizpideetan desadostasun ugari egon da. Zailtasun honek munduko hizkuntza batzuk jatorri genetiko finkorik gabe utzi ditu. Hizkuntza hauei *hizkuntza isolatu* deritze.

Lehenengo eta behin, komeni da hizkuntza isolatu bat zer den zehaztea. Hizkuntza isolatuen inguruan ikertu duen Campbell hizkuntzalari estatubatuarrak honela dio:

En la definición más común, una ‘lengua aislada’ es una lengua que no tiene parientes, es decir, que no tiene relación genética [genealógica, filogenética] demostrable con ninguna otra lengua. Es una lengua que no se ha demostrado como descendiente de una lengua madre (ancestral) que tenga otros descendientes (lenguas hijas). Por lo tanto, las lenguas aisladas, en efecto, son familias de lenguas que tienen sólo un miembro, una sola lengua. (Campbell, 2011:23).

Hortaz, hizkuntza isolatu bat familia-kiderik ez duen hizkuntza da, inongo hizkuntzarekin harreman genetikorik duela ezin froga daitekeen hizkuntza, alegia. Ez arbasorik ez oinordekorik ez duen hizkuntza; beraz, kide bakarreko familia osatzen duena.

Hizkuntzak familiaka sailkatzen direla esaten dugunean, hizkuntza talde bat arbaso beretik eratortzen dela esateko nahikoa froga dagoela diogu, eta beraz, hizkuntza horiek genetikoki harremanetan daudela (Campbell, 2011).

Hizkuntza isolatuak, seniderik ez izan arren, ez dira familia baten barnean sailkatuta dauden hizkuntzetatik hain desberdinak. Gainera, hizkuntza isolatu bat ez da halabeharrez bakan. Izan ere, hizkuntza isolatuek ahaide ezagunik ez izanagatik, mendeetan beste hizkuntzekin harremanak izan dituzte.

Honela, hiru arrazoi egon litezke hizkuntza bat genetikoki isolatua izateko:

1. Alde batetik, gaur egun hizkuntza bat isolatu izan liteke, arbaso edota familia-kideak bazituelako baina gugana haien berririk heldu ez delako, hau da, senideak inongo aztarnarik utzi gabe desagertu direlako. Horren adibide da Siberiako ket hizkuntza. Hizkuntza hau yeneseian hizkuntza-familian gaur arte bizirik iraun duen bakarra da. Izan ere, familia horretakoak ziren arin, asan, kott, pumpokol eta yugh hizkuntzak hilak dira. Hortaz, hizkuntza hauek inolako aztarnarik utzi gabe desagertu izan balira, ket hizkuntza isolatua litzateke. Beste adibide bat da, esaterako, lenca familia. Hizkuntza familia hau bi hizkuntzek osatzen dute: chilanga (El Salvadorren hitz egiten dena) eta lenca hondurarra. Azken hau inolako aztarnarik utzi gabe desagertu izan balitz, egun bere ahizpa den chilanga hizkuntza isolatua izango litzateke. Aitzitik, hildako lenca hondurarraren lekukotasunik badagoenez, chilanga hizkuntzak badauka familiarik. (Campbell, 2011:25).

2. Beste aldetik, egun hizkuntza isolatutzat hartzen dena, genetikoki lotua egon liteke bizirik dagoen beste hizkuntza batekin, hots, senideren bat izan lezake. Hala ere, erlazioa hain liteke aspaldikoa eta hizkuntza biak hain desberdinak lirateke, non ez duen egun erlazio genetiko hori antzemateko aztarnarik utzi.

3. Azkenik, asmatuak diren hizkuntzak ere isolatutzat hartzen dira. Erabat berriak diren heinean, ahaidetik ez dutela ondorioztatu behar dugu. Honelakoak dira zenbait keinu hizkuntza, Nikaraguakoa esaterako (Meir, 2003).

Hizkuntza isolatuez ari garela, beste bereizketa garrantzitsu bat egin behar da. Campbellen (2011) arabera, ondo bereiztekoak dira hizkuntza isolatuak eta sailkagabeak, askotan nahastu egiten baitira.

Sailkatu gabeko hizkuntza, lekukotasunen urritasuna dela medio, familia talde batean sartu ezin daitekeen hizkuntza da. Hizkuntza hauen inguruko behar adina datu ezak ezinezkoa bihurtzen du gainerako hizkuntzekin konparatzea, eta beraz, hizkuntza hauen jatorri genetikoa jakitea. Hizkuntza isolatuen kasuan, ordea, badago nahikoa lekukotasun konparaketak egiteko, eta hizkuntza hauen isolamendua konparaketen emaitzek adierazte dute.

Sailkatu gabeko hizkuntzen artean bi azpitalde egin daitezke: lehenengo azpitaldean dagoeneko sailkatzeko nahikoa lekukotasunik utzi gabe hil diren hizkuntzak leudeke. Esaterako: Tartesiera (Iberiar penintsulan, hego-mendebaldean, k.a. I milurtekoa) eta Minoera (A lineala, deszifratu gabea, k.a. 1800-1450) (Campbell, 2011:30).

Bigarren taldean, aldiz, bizirik egon, baina sailkatzeko nahikoa *corpus* edo daturik ezagutzen ez diren hizkuntzak leudeke. Campbellek (2011:30) Andamán uharteetako eta hego-Amerikako honako hauek aipatzen ditu: Aguano, Amikoana, Anserma, Arara, Arma-Pozo, Atunceta, Bagua, Bolona, Caagua, Canelo, carabayo, Caucahue, Chachapoya, Chechehet, Chipiajes, Chitarero, Chono, Ciaman, Colima, Comechingón, Copallén, Coxima, Ewarhuyana, Gorgotoqui, Guaca, Guanaca, Hacaritama, Himarima, Huacavilca, Iapama, Idabaez, Jamundim Jitirijiti, Irra, Kaimbe, Kamba, Kambiwá, Kapinawa, Karahawyana, Kohoroxitari, Korubo, Lili, Malibú, Manta, Miarra, Natagaimas, Pacarará, Pankararé, Pantagora, papavo, Pehuenche, Pubenza, Sacata, Sanavirón, tabancale, Tapeba, Tegua, truká, wakona, wasu, Yará, Yumbo, etab.

2. ZENBAT HIZKUNTZA ISOLATU DAUDE?

Munduan bizirik dauden 7100 inguru hizkuntzetatik 141 hizkuntza familia daude. Hauetaz gain, beregain diren 135 hizkuntza familia ere badaude; hizkuntza isolatuek, kreolerek, keinu hizkuntzek eta hizkuntza sailkagabeek osatuak, besteak beste. Hauek dira egun bizirik dauden munduko hizkuntza isolatuak (*Ethnologue*, 2015):

Hizkuntza	Kontinentea	Herrialdea
Bangime	Afrika	Mali
Centúúm		Nigeria
Hadza		Tanzania
Sandawe		Tanzania

Hizkuntza	Kontinentea	Herrialdea
Ainu	Asia	Japonia
Burushaski		Pakistan
Kusunda		Nepal
Nihali		India

Hizkuntza	Kontinentea	Herrialdea
Chimariko	Ipar-Amerika	Estatu Batuak
Chitimacha		Estatu Batuak
Esselen		Estatu Batuak
Karok		Estatu Batuak
Klamath-Modoc		Estatu Batuak
Kutenai		Canada
Molale		Estatu Batuak
Natchez		Estatu Batuak
Salinan		Estatu Batuak
Shasta		Estatu Batuak

Siuslaw	Estatu Batuak
Tonkawa	Estatu Batuak
Tunica	Estatu Batuak
Washo	Estatu Batuak
Yuchi	Estatu Batuak
Zuni	Estatu Batuak

Hizkuntza	Kontinentea	Herrialdea
Aikanã		Brasil
Andoque		Colombia
Arutani		Brasil
Aushiri		Peru
Callawalla		Bolivia
Camsá	Hego-	Colombia
Candoshi-Shapra	Amerika	Peru
Canichana		Bolivia
Cayubaba		Bolivia
Chiquitano		Bolivia
Cofán		Ecuador
Guató		Brasil
Iatê		Brasil
Irántxe		Brasil
Itonama		Bolivia
Kanoé		Brasil
Karirí-Xocó		Brasil
Kunza		Chile
Kwaza		Brasil
Leco		Bolivia
Movima		Bolivia
Muniche		Peru

Ofayé		Brasil
Omurano		Peru
Oti		Brasil
Pankararú		Brasil
Puelche		Argentina
Rikbaktsa		Brasil
Sapé		Venezuela
Seri		Mexiko
Taushiro		Peru
Ticuna	Hego-	Brasil
Trumai	Amerika	Brasil
Tuxá		Brasil
Uamué		Brasil
Urarina		Peru
Vilela		Argentina
Waorani		Ecuador
Warao		Venezuela
Xinca		Guatemala
Xukurú		Brasil
Yámana		Chile
Yuracare		Bolivia
Yuwana		Venezuela

Hizkuntza	Kontinentea	Herrialdea
Euskara		Euskal Herria
Gilyak	Europa	Errusia

Hizkuntza	Kontinentea	Herrialdea
Abinomn		Indonesia
Abun		Indonesia
Elseng		Indonesia
Hatam		Indonesia
Kol		Papua Ginea Berria
Kuot		Papua Ginea Berria
Massep	Ozeania	Indonesia
Mpur		Indonesia
Odiai		Papua Ginea Berria
Pyu		Papua Ginea Berria
Sulka		Papua Ginea Berria
Taiap		Papua Ginea Berria
Yale		Papua Ginea Berria

Tauletan ikus daitekeen bezala, Afrikan eta Asian launa hizkuntza isolatu daude bizirik egun; Ipar Amerikan 16; Hego Amerika 44; Europan 2 eta Ozeanian 12. Guztira munduko 7100 hizkuntzetatik 82 hizkuntza isolatuak dira. Oso kopuru txikia beraz. Hizkuntzak banaka hartuz, isolatuak %2ra ere ez dira iristen munduko hizkuntzen artean. Hala ere, hizkuntza “familia” guztiak kontuan hartzen badira, datuak bestelakoak dira. Osotara 276 hizkuntza familietatik isolatuak %30a osatzen dute, hau da, munduko hizkuntza familien herena¹.

¹ Campbellen (2011) artikuluan agertzen diren datuak kontuan hartuz kalkulatuak emaitza da.

3. HIZKUNTZA ISOLATU EZAGUNENAK

Hizkuntzalaritzan, isolatu ezagunenak euskara, ainua eta burushaskia dira (Campbell 2011:24). Euskararen azterketa laugarren atalerako utzita, jarraian, ainu eta burushaki hizkuntzak aurkeztuko ditut hurrenez hurren. Ondoren, keinu hizkuntza sortu-berri batzuen inguruko jakingarri batzuk garatuko ditut.

XVIII-XIX. mendeetan, hizkuntzalaritza historikoaren jaiotzarekin batera, hizkuntzen historia egitea zen hizkuntzalarien helburu nagusia. 1786. urtean Sir William Jones filologo britainiarrak hizkuntzen historia egiteko ezinbestekoa zen aurkikuntza bat ezagutarazi zuen. Sir Jonesek aspaldian hildako sanskrito hizkuntza ezagutu zuen. Latina eta grekera klasikoekin konparatzean, aditz-erroetan eta gramatika-formetan antzekotasun handiak zituztela ohartu zen, halabeharrez sortuak ezin izan zitezkeenak, eta hiru hizkuntzak iturri beretik sortuak zirela aldarrikatu zuen. Jonesen lana abiapuntu hartuz, hiztegi eta gramatika antzekotasunak hizkuntza askotan antzematen direla ikusi zuten hizkuntzalariak. Antzekotasun hauetaz baliatu dira hizkuntzak euren artean konparatzeko eta haien jatorri komuna berreraikitzeke (Pinker, 1994)

Hizkuntzen berreraiketean erabili den tresna *metodo konparatzailea* izan da: hizkuntzak konparatzen dira, antzekotasun sistematikoak antzeman eta antzinagoko forma bat lortzeko. Europako hizkuntzen erlazio genetikoan metodo konparatzailea arrakastatsu suertatu zenez, munduko gainerako hizkuntza oren historia berreraikitzeke modu bakarra zela uste izan zuten zenbait hizkuntzalarik. Hona adibidez Meillet:

De ce que la méthode comparative est la seule qui permette de faire l'histoire des langues il résulte que, tant qu'une langue est isolée, elle est dénuée d'histoire. (...) Si donc on ne trouvait pas de moyen de rapprocher le basque de telle ou telle autre langue, il n'y aurait aucun espoir d'en faire jamais l'histoire (Meillet, 1925:12)

Hori horrela izanik, hizkuntza isolatuen historia berreraiki nahian eta horretarako bidea metodo konparatzailea zenez, hizkuntzalariak ezinean ibili ziren hizkuntza isolatuei senideak bilatzeko ahaleginetan.

Jarraian, ainu, burushaski eta euskara familia batean sailkatzeko egin diren saiakera batzuen inguruan arituko naiz, eta saiakera horien ondotik isolatutzat zergatik hartzen

diren egiaztatuko da. Era berean, hizkuntza sortu berrien isolatutasunaren inguruan arituko naiz.

3.1. Ainu hizkuntza

Ainutarrak japoniar artxipelagoan iparraldean dagoen Hokkaido² uhartean bizi diren leinu bat dira. Ainutarren arbasoek japoniarrengandik jatorri fisiko eta kultural ezberdina izan arren, egun, japoniar leinuarekin ia erabat bat eginda daude. Izan ere, normalean ainua ez da egunerokotasunean komunikatzeko erabiltzen eta beraz, hil zorian dagoela esan liteke (Shibatani,1990:3). Are gehiago, *Ethnologueren* (2015) datuen arabera, egun 10 bat biztanle baino ez ditu ainuak.

Ainutarren jatorria ez dago erabat argi. Duela gutxiko historiak adierazten duenez, Kurile zein Sakhalin irlak izan dira haien bizilekua. Japoniar uharteetako iparraldean toponimiak aditzera ematen duenez, Honshu uharterik handienean ere bizi omen ziren aspaldi. Era berean, Asiako Kamchatka penintsulan ainu toponimia aurkitu izanak uste baino eremu zabalagoa hartzen zutela erakusten digu (Shibatani, 1990).

Ainu hizkuntzaren erlazio genetikoari dagokionez, hainbat hipotesi egon izan dira, baina saio gehienek ez dute arrakasta handirik lortu.

Adibidez, Ainu hizkuntza indoeuoperarekin lotu izan da. Lindsquist hizkuntzalariak (1960) jorratu du bide hau beste batzuen artean. Hipotesi hau sustatzeko dagoen ebidentzia jatorri indoeuoparra duten hamalau ainu-hitzen frogak ematean datza. Baina, hitz hauen antzekotasunak hots bidezkoak ez direnez, Lindsquisten lana gogor kritikatu izan da bai ainu bai indoeuoperaren datuetan interpretazio akatsak daudela erakutsiz (Patrie, 1982:5).

Bada ainua austroasierarekin lotu duenik ere. XX. mendearen hasierako hizkuntzalari batzuk ainutarrak austroasia eremutik Japoniara migratutako leinua zirela defendatu dute (Patrie, 1982). Hipotesi honen oinarri enpirikoa hizkuntzaz kanpoko da, antropologikoa. Hizkuntzazko datuak erabili beharrean leinuen antzekotasunetan oinarritzen da. Helduleku bakarra austroasiako tribuen eta ainutarren antzekotasun fisikoa eta arma eta arropen parekotasuna da. Patriek gogor kritikatu du hipotesi hau

² Ikus (1) mapa 31. orrian.

ainutarrak Japoniako Hokkaido irlako indigenak direla aldarrikatuz: “That the Ainu are indigenous to the islands of Hokkaido is without dispute. That Hokkaido is an integral part of Japan also cannot be disputed” (1982:6).

Hipotesi paleosiberikoa³ da onartuena (Patrie, 1982:6). Honen arabera, ainua familia paleosiberikoaren kide da, geografikoki gertu⁴ dituen Gilyak eta Yukagir hizkuntzekin batera. Hala ere, Patriek, hipotesi hau ere deuseztatu egiten du:

This nomenclature, however, specifies a geographic language grouping and not a language family in the normal sense of genetic affiliation. Thus such language isolates as Gilyak and Ainu are grouped together with languages where there is sufficient evidence to hypothesize a genetic relationship (1982:6).

Baina ez dago bestelako ebidentziarik ainua familia honetan sartzeko.

Hizkuntza altaikoen hipotesia ere proposatu dute hainbat hizkuntzalarik. Hizkuntza altaikoen Turkiatik eta Europako ekialdetik hasita, Asiako ipar-ekialderaino hedatzen den familia bat osatzen dute. Hizkuntza altaikoen familian turkiera, mongoliera eta tungus hizkuntzak daude, adibidez (Patrie, 1982:6). Patrie hizkuntzalariak 1982ko tesian ainu-japoniera-koreera azpi-talde bat proposatzen du, hain zuzen hizkuntza altaikoen adar gisa. Patrie-ren (1982) hipotesiak bi ardatz ditu. Alde batetik, ainua hizkuntza altaikoen parte dela argudiatzen du eta bestetik, ainu-japoniera-koreera familia proposatzen du. Bere hipotesiak badu hizkuntzazko sostengurik: ainu eta hizkuntza altaikoen artean antzekotasun fonologiko, morfologiko eta sintaktikoak bildu ditu; berak dioenez, esaterako, “there is a respectable amount of phonological correspondences; a total of 140 possible cognates exhibiting recurring sound correspondences between Ainu and Altaic” (Patrie, 1982:119).

Hala ere, Patrieren hipotesi altaikoak kritikak jaso zituen, Shibatanik azaltzen duenez:

While Patrie’s work is the only serious and substantial comparative and historical work on Ainu, it has received mixed appraisals from the specialist

³ Baita ere paleo-asiatikoa deitua.

⁴ Ikus (1,2) mapak 30. orrian.

ranging from encouraging (Miller 1983) to quite unfavorable (Street 1983) (1990:7).

Laburbilduz, ainu hizkuntzaren jatorri genetikoaren inguruan hipotesi ugari badaude ere, hizkuntzalarien artean erabateko adostasunik ez dagoela nabaria da. Shibatanik bermatzen du:

In terms of genetic classification, Ainu is best described as a language-isolate. Although various suggestions have been made relating Ainu to such language families as Paleo-Asiatic, Uralic-Altaic, and Malayo-Polynesian, or to individual languages such as Gilyak, Eskimo, and Japanese, none of them have progressed beyond the level of speculation (1990:5).

Hortaz, azterketak aurrera jarrai bitartean eta froga ziurrik ez izan artean, ainuak hizkuntza isolatuen familian du tokia.

3.2. Burushaskia

Burushaski Yasin eta Hunza ibarretan, Pakistan herrialdeko iparraldean hitz egiten da⁵. Egun, 80 mila bat biztanlek erabiltzen dute eta bi dialekto nagusi ditu: yasiera, zaharrena, eta hunzaera, berriagoa. Hizkuntza honen ikerketa ez da erraza, ez baitu idatzizko dokumenturik utzi.

Hizkuntza isolatu guztiak bezala, burushaskiren jatorri genetikoaren inguruan denetariko erlazioak proposatu izan dira. Bi hipotesi dira nagusi: hipotesi dene-kaukasiera eta hipotesi indoeuroparra.

Hipotesi dene-kaukasiera Karl Boudak (1950, 1954, 1964) proposatu zuen. Boudak burushaskiren hitz batzuen etimologiak egiten ditu metodo konparatzailea erabiliz, eta hitz horien jatorria ekialdeko hizkuntza kaukasikoetan kokatzen du. Bere lanean harreman genetikoaren inguruan aritzen ez bada ere, Bouda da hurrengo urteetan hipotesi honi helduko dioten hizkuntzalarientzako abiapuntua.

Azken urteotan, burushaskia dene-kaukasiera izenez ezaguna den makro-familiarekin lotu izan da (Alonso de la Fuente, 2006). Makro-familia honek toki desberdinetako munduko hizkuntza asko biltzen ditu: Ipar Amerikako na-déné

⁵ Ikus (3,4) mapak 31-32. orrietan.

hizkuntzak; sino-tibetera eta yeniseiera Asia erdialdean; ekialdeko kaukasiera, eta hizkuntza isolatu batzuk, euskara, kusunda zein sumeriera, esaterako (V. Blaz eta John D. Bengston, 1995 *apud* Alonso de la Fuente, 2006)

Hizkuntzalari askoren ustetan, makro-familiaren hipotesi honek ez dauka nahikoa sostengu enpiriko, ezin baita metodo konparatzailea erabili aztarna idatzirik utzi ez duten hizkuntzekin. Hipotesi honi kritika egin diotenen artean Trask (1997, *apud* Alonso de la Fuente, 2006) hizkuntzalaria dugu. Alonso de la Fuentek ere kritikatzten du hipotesia:

En los últimos años el B se ha relacionado insistentemente con dicha macro-familia, muy del gusto de los lingüistas que en EE.UU. responden al nombre despectivo de *long-rangers*, al relacionar lenguas de muy dispar localización geográfica o de procedencia discutidísima. Algunos autores han calificado esta macro-familia de “cajon de sastre”, no por capricho, sino porque parece que este grupo genético reúne las más variadas y “aisladas” lenguas del planeta” (2006:563-64).

Burushaskiren hipotesi indoeuroparra onartuago dago. Australiako Macquarie unibertsitateko Casule-k (1998, 2003a, 2003b, 2004) burushaski eta indoeuropea genetikoki elkartzen dituen material ugari bildu du, metodo konparatzailea erabiliz. Izan ere, burushaskik hizkuntza indo-iraniarrak hitz egiten diren zonaldea hartzen du eta hortaz, maileguak ere nabarmenak dira bi hizkuntzen artean. Era berean, fonologia zein morfologia arloan, antzekotasunak hain dira begi bistakoak non hizkuntzalari askok burushaski hizkuntza isolatuen zerrendatik ezabatu duten (Alonso de la Fuente, 2006). Alonso de la Fuente (2006) hizkuntzalariaren iritziz, Casuleren lana orain artean egin den serioena eta garatuena den arren, ezin da ezbaian jarri lan handia egiteke dagoela oraindik burushaskiren jatorri genetikoa argitu nahi bada. Hortaz, datuak zehatzagoak izan bitartean, aditu askorentzat burushaskik hizkuntza isolatu izaten jarraituko du.

3.3. Isolatu berezi mota bat: keinu hizkuntza berriak

Hizkuntza sortu-berriak iturri erakargarria izan dira hizkuntzalarientzat, bai hizkuntzaren bilakaera aztertu nahian, bai gizakion lehen hizkuntza horren hastapena eta jabeakuntza nolakoa den bezalako helburu zehatzagoak lortze aldera (Meir, 2003).

Hizkuntza berrien jaiotzan kasurik ezagunenak kreolerak dira. Hizkuntza desberdinetako hiztunek zeregin praktikoak bete ahal izateko elkarrekin komunikatu behar direnean, baina batak bestearen hizkuntza ikasteko aukerarik ez dutenean, behin-behineko hizkera bat garatzen dute; *pidgin*, bat, alegia. Kolonizatzaileen edo plantazio-jabeen hizkuntzatik harturiko hitz-segida zatikatuak dira pidginak, hitz hurrenkeran oso aldakorak eta gramatikan urriak (Pinker, 1994:28). Ohikoa da pidginak arrantzale, kolono edo bidaiari eta heldu diren lurreko bertako biztanleen hartu-emanaren ondorioz sortzea. Elkar ulertzeko sortu den pidgin hori hurrengo belaunaldiaren lehen hizkuntza izatera igarotzen denean, *kreolera* esaten zaio. Bien arteko aldea oso handia da: lehena ez da giza hizkuntza bat, baina bigarrena bai. Lehenak ez du gramatikorik, baina bigarrenak bai. Hots, pidginak ez dira hizkuntzak baina kreolerak bai. Kreolerak haurrek sortutako hizkuntzak dira, gramatika-eredurik inguruan jaso ez eta haiak eratzten dute bat, oso denbora laburrean. Kreolerak, sailkapen genetikoaren ikuspuntutik, isolatuak dira, baina mota berezia osatzen dute. Haien isolatutasuna ez dator senideen desagertpenetik, edo dokumentazio falta baten ondorioz. Isolatuak dira, ezerezetik sortuak direlako.

Pinkerrek dioenez, pidginetik kreolerarako bilakabidea askotan, plantazio jabeek haurrak gurasoengandik bereizi eta pidginez mintzo zitzaien langile baten ardurapean elkarturik uzten zutenean gertatzen zen. Hitz-segida zatikatuak errepikatzearekin ase ez, eta konplexutasun gramatikala txertatzen hasten dira haurrak adierazkortasun handiko hizkuntza aberats berria, kreolera, sortzeraino (1994:28).

Kreolerak, beraz, jatorri ezaguna duten bi hizkuntza edo gehiagotatik eratortzen dira eta ezin esan liteke oso osoan askeak direnik edota inongo hizkuntza oinarririk gabe sortuak direnik (Meir, 2003).

Inongo aurrekaririk gabe sortu diren hizkuntza hauen artean bada kasu harrigarririk, esaterako Nikaraguako keinu hizkuntzaren kasua. Keinu hizkuntza berriak asmatu dituzten gor komunitateetako adibide ezagunena eta ikertuena Nikaraguakoa dugu.

Keinu hizkuntza berri hau, beste keinu zein ahozko hizkuntzen eraginik gabe asmatu da, gurasoengandik hizkuntzarik jaso ezin izan duten gorren arteko komunikatzeko beharrak asetzeko (Meir, 2003).

1979ko Iraultza Sandinistaren ondoren, partidu sandinista hezkuntza, osasun eta gizarte politika berriekin heldu zen gobernura. Hezkuntza aldaketa horiek gorrentzako lehen eskola publikoaren irekiera ekarri zuten besteak beste, 1980. urtean. Ordura arte, Nikaraguako gorrek elkarrengandik bereizita bizi ziren, eta gehienez ere familia barnean komunikatzeko aukera zuten. Eskola ireki zenean, ordea, haur gorrek lehenengo aldiz beste haur gorrekin egoteko aukera izan zuten eta berehala, haien artean keinu hizkuntza bidez komunikatzen hasi ziren. Haur gorren arteko keinu bidezko komunikazioa ez zen eskolara mugatu, baizik eta autobus, jolas-toki eta kalera ere zabaldu zen (Senghas, 1995).

Luze baino lehen, beraz, komunikatzeko sistema hura mamitu, eta orain Lenguaje de Signos Nicaragüense (LSN) esaten zaion hizkuntza bihurtu zen. Gaur egun, hamazazpi eta hogeita bost urte bitarteko gazte gorrek, nor bere gaitasun eta etorriarekin, erabiltzen dute LSNa; hamazazpi bat urte zituztenean garatutakoa, hain zuzen (Pinker, 1994).

1970eko hamarkada bukaeran sortutako keinu hizkuntza honek bilakabide bat jasan du. Izan ere, lehen belaunaldiko ume gorrek LSNa sortu zutenean, oinarrizko unitateen sekuentziazio bat baino ez zuten egin (Senghas, 2004). 1980 eta 1990ko hamarkadetan, gazteagoak ziren haur gorrek, ordea, oinarrizko sekuentzia horien abiadura arindu eta trinkotu zuten, eta imintzio estilizatuagoak egiten hasi ziren. Gazteagoak diren haur hauen keinu hizkuntzari, LSNtik hain desberdina denez, beste izen bat ematen zaio: *Idioma de Signos Nicaragüense* (ISN) (Pinker, 1994).

Hurrek LSNak ez zituen gramatika-tresna ugari txertatu dituzte, eta modu horretan, ez dute hainbesteko itzulitururik egin behar. Gramatika finko horri esker, oso adierazkorra da ISNa. Orain haurra gai da marrazki-bizidunetako istorio surrealista bat

ikusi eta beste haur bati azaltzeko, adibidez (Pinker, 1994). Beraz, argi dago, Nicaraguako haur gorrek sortu dutena hizkuntza berri bat dela.

Laburbilduz, esan bezala, keinu hizkuntza berri hauek batez ere giza-hizkuntzaren sorreraren nondik norakoak aztertzeko interesgarri badira ere, munduko hizkuntzen sailkapenean diharduten hizkuntzalarientzat ere deigarri dira. Izan ere, erabat asmatuak diren heinean, hizkuntza isolatuen familian sailkatu behar dira, ez baitute arbasorik edo ibilbide historiko ezagunik.

4. EUSKARA

Euskara hizkuntza isolatuen artean ezagunenetakoa da. Euskal Herrian hitz egiten da gehien bat, eta egun 720.000 bat hiztun ditu. Indoeuroparra ez den eta bizirik dagoen Europa mendebaldeko hizkuntza bakarra da; hizkuntzalari konparatisten harribitxia da eta izan da, familia kideren bat bilatzeari dagokionez.

Jarraian, euskararen ahaide izateko proposatu diren hipotesi sorta aurkeztuko dut, Trask hizkuntzalariaren 1995eko artikulua oinarri hartuz. Besteak beste, “europara zaharren” hipotesia, eusko-iberismoa, afrika iparraldeko hizkuntzen hipotesia, kaukasoko hizkuntzen hipotesia eta akitanierarena garatuko ditut hurrenez hurren, ezagunenak direlako.

4.1. Euskararen ahaideen bila

Euskarak ahaide bat duela proposatu zuen lehen hipotesia “europara zaharra” deiturikoa da. Hipotesi honi aspalditik zetorren uste batek ematen dio izena; indoeuoparren etorrera baino lehen, mendebaldeko European hizkuntza bakarra edo hizkuntz familia bakarra hitz egiten zela defendatzen du. IE ez den hizkuntza horri “europara zaharra” izena eman izan zaio literaturan.

Hipotesi hau beste kezka batekin lotzen da, hots, nola berreskuratu ote zitezkeen IE baino lehen European hitz egiten ziren eta arrastorik utzi gabe hil ziren hizkuntzak. Erantzun bakarra zuen galdera honek, hau da, Europa osoan barna, han-hemen topatzen diren leku-izen ez indoeuoparren bitartez. Leku-izen hauek hizkuntza ezagunen bidez ezin azaldu zitezkeenez, hizkuntza aurre-indoeuoparren batenak izan behar zuten, edo hipotesiari jarraituz, “europara zaharrenak”.

Vennemann hizkuntzalaria (1994a) Europako aurre-IE hizkuntzaren hipotesiari tiraka aurrerago joan zen eta mendebaldeko Europan bizirik dagoen hizkuntza ez-indoeuropar bakarra euskara izanik, proposatu zuen haxe zela bilatzen ari ziren antzinako hizkuntza, hots, “euopera zaharra”. Bere hipotesiak indarra hartu zuen, azaldu ezin ziren toponimo horiek, euopera zaharreko substratuko hitzak, euskararen bitartez egin baitzuen. Vennemann-en adibideetako bat: *Munich*, alemaniar hiria dena eta muino batean dagoena, euskal *muino*ekin lotu zuen. Dena dela, adibidea polita izanagatik, Vennemannen hipotesiak okerrekoa ematen du. Izan ere, kasu honetan, jakina da Mitxelenaren (1985) lanetik, euskal *muino* < **buinotik* datorrela, eta beraz, *muino* ez dela aitzin-euskarako hitza. Gainera, Traskek (1995) dioenez, *Munich* hiri izenak etimologia germanikoa dauka eta *monje* hitzarekin lotu behar da.

Hala ere, Vennemannen hipotesia zuzena balitz eta euskara Europako hizkuntza zahar horren ondorengoa balitz, euskarak isolatu izaten jarraituko luke. Izan ere, balizko hizkuntza familia horretan egun bizirik legokeen Europa mendebaldeko hizkuntza bakarra izango litzateke.

Bigarren hipotesia ere, baskoiberismoa edo euskoiberismoa, aspaldiko hipotesi bat da. Funtsean, euskara eta iberiera familia bereko bi hizkuntzak direla defendatzen du.

Antzinako iberiar hizkuntza Espainiako hegoaldean eta ekialdean aurkitutako zenbait inskripziotan jaso da. Inskripzio horiek harrian, taula metalikoetan eta txanponetan agertzen dira, eta K.a.VI. mendetik lehenengo mendera artekoak dira. Idazkera bitxi hori, beraz, antzinako euskararen arrastotzat hartu zuten hainbat hizkuntzalarik eta modu horretan, iberiera eta euskara ahaidekidetu zituzten. Bi hizkuntza horien harreman genetikoaren jarraitzaile horietako bat Humboldt izan zen. Humboldtek, besteak beste, iberiera euskararen antzinako forma zela ezagutarazi zuen bere 1821eko liburuan.

Hipotesi horri helduz, XIX. mendetik hasita hizkuntzalariek iberiera eta euskararen artean antzekotasunak aurkitzen eta bi hizkuntzak konparatzen jardun dute. Lan horretan aritutakoa Schuchardt izan zen, besteak beste. Hugo Schuchardtek bere 1908ko *Die iberische Deklination* liburuan iberieraren izen-deklibanidearen berreraiketa iragarri zuen, eta iberieraren kasu-bukaerak euskararekin identifikatzen saiatu zen. Gómez Morenok (1949), ordea, iberiera deszifratzea lortu zuen eta ondoren, Antonio Tovar eta Koldo Mitxelena arduratu ziren iberieraren fonologia aztertzeaz. Hartara, euskararekiko

(bai eta aitzin-euskararekiko) parekotasunak egongo lirateke: bost bokal, leherkari ahostunen nagusitasuna, *m*-ren urritasuna, *p*-ren ia erabateko gabezia eta kontsonante talde gutxi eta sinpleak. Era berean, morfologian antzeko hizkiak aurkitzen dira, hots, *-tar*, *-ko*. Iberiera, euskara bezala, hizkuntza eranskaria zen.

Antzekotasunak antzekotasun, Mitxelenak (1955, 1958, 1973, 1976, 1979) iberiera deszifratzen jakin bai, baina esanahia ez dela ezagutzen, eta bi hizkuntzen arteko antzekotasun formalak zein linguistikoak kasualitatezkoak izatearekin edota hizkuntza eremuko (*Sprachbund*) ezaugarriekin lotu daitezkeela ohartarazten du (Trask, 1995).

Ondorioz, iberierak eta euskarak antzekotasun batzuk erakusten badituzte ere, oraindik ez dago nahikoa daturik senideak diren ala ez baieztatzeko. Traskek ezbaian jartzen ditu orain artean egindako lan gehienak: “I find it exceedingly difficult to believe that any reader could take this sort of thing seriously, but some linguists have nonetheless done so” (1995:80). Beraz, hipotesi honi dagokionez, euskarak isolatu jarraituko du momentuz.

Hirugarren hipotesia, bigarrenaren eskutik doa. Euskara eta Afrika iparraldeko hizkuntza batzuk, berberera esaterako, familia berekoak liratekeela aldarrikatzen du. Ideia honen garapena, iberiera Afrika iparraldetik etortzearekin lotzen da; iberiera eta Afrika iparraldeko hizkuntzak jatorri berekoak balira eta euskara eta iberiera ere genetikoki lotuta baleude, orduan euskara ere Afrika iparraldeko hizkuntza horien senide litzateke. Hipotesi hau Schuchardtek landu zuen; 1913.ean 105 euskal hitzen zerrenda bat argitaratu zuen, dozena bat Afrika iparraldeko hizkuntzetako hitzekin konparatuz. Konparaketarik ezagunena euskara-berberea da:

Euskara	Berberea
<i>Izar</i>	<i>Izeren</i>
<i>Izen</i>	<i>Isen-izm</i>
<i>Aker</i>	<i>Iker-aker</i> “bildots”
<i>Anaia(a)</i>	<i>Ana</i>
<i>Ama</i>	<i>Imma</i>
<i>Zamari</i>	<i>Zagmarz</i> “behor”
<i>-a</i>	<i>-a</i>

Zazpi hitzetako konparaketa hau, ordea, berehala bazter liteke. Besteak beste, *-a* euskal artikulua 3. graduko erakuslearen **har-* enborretik dator. Ekialdeko euskal *zamari* ‘zaldi’ latineko *sagmarius*-etik hartutako mailegua da. Berberearen aldetik ere arazoak daude: Ouhalla hizkuntzalariaren arabera, berberekiko *isem* arabierako *ism*-etik hartua da, eta, gainera, berbere hiztuna den Ouhallak ez ditu ezagutzen aipatutako gainerako hitz berbere gehienak (Trask, 1995:88).

Beste hipotesi ezagun batek euskara eta Kaukasoko hizkuntzak senide direla defendatzen du. Hipotesi honi Schuchardtek eman zion hasiera (1913), euskara eta kaukasoar hizkuntzen arteko kidekotasun batzuk aipatu zituenean. Uhlenbeck (1923, 1924, 1940-41, 1946, 1947) hizkuntzalari nederlandarra, euskal-kaukasoar lotura ikertzen aritu zen. Tombetti hizkuntzalari italiarrak liburu oso bat egin zuen (1925) euskal-kaukasoar sustraikideekin osatutako zerrenda luzea aldarrikatuz. Kaukasoean aditua zen Dumézil frantsesak ere iparraldeko kaukasoar hizkuntzei buruzko 1933ko liburuan kapitulu bat erabili zuen euskararen ustezko sustraikideak aipatzeko. Lafon euskalariak dokumentu-sorta ugari idatzi zituen euskal-kaukasoar lotura genetikoaren alde eginez eta zenbait dozena ahaidekide proposatuz (Lafon 1933, 1944, 1948, 1951, 1952a, 1952b, 1957, 1967, 1968). Voght norvegiar kaukasologoak bi artikulutan heldu zion gaiari eta ahaide-zerrenda txikia proposatu zuen (Voght 1942, 1955). Azkenik, Bouda hizkuntzalari alemanak aurreko literatura guztia aztertu eta bere aldetik zenbait konparazio gehiago egin ondoren, artikulua-sorta batean (Bouda 1948, 1949, 1951, 1952) hipotesi hau zabaldu zuen ustezko ia 500 sustraikide aurkeztuz (Trask, 1995).

Euskara kaukasoar hizkuntza batzuekin edo guztiekin genetikoki lotzeko ahaleginak XX. mendean egin izan dira. Lotura hau euskararen eta Kaukasoko hizkuntzen arteko antzekotasun tipologikoengatik egin da oro har. Euskarak morfologia ergatiboa eta komunztadurazko aditz-sistema landua dauka, kaukasoar hizkuntza gehienek antzera eta komunean dituzten ezaugarri hauek aski izan dira hainbat hizkuntzalarik hor aurkitu beharreko loturarik izan behar duela argi ikusteko (Trask, 1995). Hala ere, antzekotasun tipologikoek gutxitan eman dute erlazio genetikoak identifikatzeko laguntza. Izan ere, antzekotasun tipologikoak konparatzea bi hizkuntzen arteko harreman genetikoa frogatzeko, irizpide ahula zela erakutsi zuen Greenberg-ek 1963an genetikoki jatorri bera ez zeukaten hainbat hizkuntzetan

antzekotasun tipologikoak erakutsiz. Gainera, hipotesi honetan ere, gainerako konparaketetan bezala, euskal maileguak, onomatopeiak eta gaizki zatituriko hitzak erabili izan dira, eta ez, beharko litzatekeen bezala, aitzin-euskarakoak diren hitzak. Esaterako, Chirikba-k (1985) euskal *gurpil* eta *inguru* hitzak, *g^w Vr-* “uztai, eraztun” erako kaukasoar erroekin konparatzen ditu; baina, *gurpil* hitz elkartua da *gurdi* eta *-bil* osagaiak osaturikoa eta *inguru* latineko *in gyrotik* mailegatua da (Trask, 1995:85). Mitxelena ere bere (1964b) liburuan kexu da euskal-kaukasoar proposamenak kasualitatezko antzekotasunak baino ez direlako, gehienetan euskarari buruzko ezjakintasun lotsagarria erakusten duelako, eta euskararen historiaurreaz argi egiterik lortu ez duelako. Esaten duenez, badirudi autorearen nahierara edozein euskal hitz nolabaiteko antzekotasuna duen edozein kaukasoar hitzekin parekatzea araua dela. Are gehiago, eskainitako paralelo gramatikalek gehienetan forma sinpleko oso morfema txikiak dakartzate, *-a*, *-n*, *-k* edo *-ra* bezalakoak, edozein hizkuntza deklinatuan erruz aurkitzea espero diren horietakoak (Trask, 1995).

4.2. Euskara hizkuntza isolatua ote?

Euskararen ahaidetzat proposatu diren hipotesien artean fruituak eman dituen bakarra akitanierarena da.

K.a. II-I mendeetan, Julio Zesarren arabera, ia Galia osoa zeltek okupatua zuten bitartean, hego-mendebaldean berak, ondoko zeltiarrekin konparatuz, erabat desberdintzat jotzen duen eta *Aquitani* (edo akitaniarrek) deitzen duen herri bat bizi zen. Akitaniera latindar testuetan dauden gutxi gorabehera 400 pertsona-izen eta 70 jainko-izenetan dago dokumentatua. Testu hauetatik gehienak inskripzioak dira, hilobietakoak, baina badira ere literatur izaera duten gutxi batzuk. Akitanieraz ez dago testu loturik, baina izen batzuk formaz elkartuak dira edo eratorpen-atzizkiak dituzte, eta haietako batzuek latinezkoen orde, kasu-hondarki indigenak diruditenak erakusten dute (Trask, 1995:86).

Akitaniar pusketek euskarari loturiko hizkuntza bat erakutsi zezaketelako ideia euskalarien eta erromanisten belaunaldien susmoa izan da. Horietako askok, Luchaire-rekin (1877) hasita, nahiko argi adierazi zuten euskara eta akitanieraren arteko harreman estua, edo are berdintasuna. Euskara eta akitanieraren arteko konparaketa egiteko,

Koldo Mitxelenak 1954.ean argitaratu zuen monografia luzea eta Joaquín Gorrochateguik (1987, 1995) egindako lanak funtsezkoak dira.

Bi hizkuntzen arteko antzekotasuna, besteak beste, honetan datza:

Lehenik, akitaniar elementu asko nabarmenki euskaldunak dira eta beste asko euskalduntzat jo daitezke. Gorrochateguik euskara historikoaren bidez azal daitezkeen akitaniar antropónimo hauek dakartza: *belex* (beltz), *bihox* (bihotz), *hars* (hartz), esaterako (1995:41). Bigarrenik, sexu-marka daramaten euskal hitzekin identifikatutako elementuak hutsik gabe gertatzen dira dagozkien sexu-izenekin: izen maskulinoak *Atta-*, *Cisson* (eus. hist. *gizon*), *sembe* (*seme*); izen femeninoak *Andere*, *Nescato* (Gorrochategui, 1995:41). Hirugarren, akitaniar testuetan azaltzen den fonologia sistema aitzin-euskararako berreraikitakoaren oso antzekoa da, *p*-ren urritasuna, geminatuen maiztasun handia, *m*-ren urritasuna, *h*-ren maiztasun altua, hitz-hasierako kontsonante-taldeen ausentzia eta *s*, *ss*, *x* eta *xs*-ren arteko gorabehera ez-sistematikoa aipa daitezke. Era berean, ezaugarri hauetan guztietan, akitaniera hertsiki bat dator Mitxelenak egindako aitzin euskararen berreraiketarekin. Azkenik, akitaniar izenek, zatika ditzakegun neurrian, euskal hitzen egitura mota bera erakusten dute: erro bakarra, edo bi errotako sekuentzia, edo hauetako edozein gehi atzizkia.

Ondorioak, beraz, nahiko argia dirudi, hots, akitaniera hain da euskarari hertsiki ahaidetua non, euskararen gutxi gorabeherako arbaso zuzentzat har dezakegun. Horrek esan nahi du Galia hego-mendebaldeko eremu handi batean euskararen antzinako forma bat hitz egiten zela.

Akitaniera eta euskararen arteko harremanaren inguruan, beraz, gutxienez bi hipotesi atera daitezke: bata akitaniera eta euskara ahizpak izatea, hau da, aitzin-euskara baten bi adarreztatze desberdin; bestea akitaniera euskararen forma zahar bat baino ez izatea (Campbell, 2011:26). Lehenengo hipotesiari helduz gero, euskara hizkuntza isolatu ez dela esan liteke. Izan ere, Campbellek dioenez:

Se ha caído en la cuenta de que algunas lenguas que se creían ‘aisladas’ en realidad no lo son, sino que más bien se trata de miembros de pequeñas familias que se detectan cuando se descubren parientes antes no conocidos (2011:27).

Honen adibide bat japonieraren kasua izango litzateke. Japoniera hizkuntza isolatua izango litzateke, ryukyu (Okinawan uhartean hitz egiten dena) japonieraren ahizpatzat hartu izan ez balitz. Beraz, japoniera ahizpak diren bi hizkuntzek osaturiko familia txiki baten partaide izango litzateke. Akitanieraren kasuan, euskararen ahizpa den bestelako hizkuntzat hartzen badugu, euskarak eta akitanierak hizkuntza familia bat osatuko zuketena eta euskarak isolatu izateari utziko lioke (Campbell, 2011:28).

Aitzitik, bigarren hipotesia kontuan hartuz gero, euskarak hizkuntza bakarreko familia osatzen jarraituko luke, hau da, isolatu izango litzateke.

Hala ere, hipotesi bati zein besteari heldu, ezin da ahaztu, akitaniera hizkuntza hila dela eta benetako harreman genetikoa frogatzeko oso *corpus* urria utzi duela. Beraz, momentuz, akitanierak euskararen bilakaeran zein toki hartzen duen zehazteko nahikoa datu ez dagoela esan behar da.

Gainerako hipotesiei dagokienez, ikusi bezala, ez dute emaitza hoberik erakutsi, metodologia ahula eta euskararekiko ez-jakintza nagusitzen baita haietan. Hortaz, Trasken (1995:92) hitzetan: “all these heroic efforts have done nothing to alter that isolated status: so far as I can see, Basque remains today as isolated as it ever was”.

5. ONDORIOAK

Lan honetan hizkuntza isolatuen inguruko aurkezpen bat egin dut. Zer diren zehazteaz gain, egun bizirik dauden munduko hizkuntza isolatuak zerrendatu ditut, taula batean eta kontinenteka sailkatuz. Era berean, hizkuntza isolatu hauek hizkuntzalaritzan, zehazki zientzia honek jorratzen duen alor historikoan, duten garrantzia azpimarratu dut.

Hizkuntzalaritza historikoaren zeregin nagusia hizkuntzen historia edota bilakabidea berreraikitzea da eta horretarako, baliagarria den metodoa metodo konparatzailea da (Meillet, 1925). Metodo konparatzailean, ahaideak diren hizkuntzak konparatzen dira; zehazki, jatorri bereko hitzak. Hizkuntza isolatuen kasuan, seniderik gabekoak direnez, eta, ondorioz, haien historia berreraikitzea ezinezko izanik, ahaideen bila jardun dute buru belarri hizkuntzalariek. Bi formen artean egokitasun erregularrak bilatuz, antzinagoko forma komuna lortzen da. Esaterako “bi” zenbakia adierazten duen sanskritoko *duva*, grekerako *dyu* eta latinezko *duo* konparatzen badira, hizkuntzalaria

ere izan beharrik ez dago hiru forma hauen kidetasuna antzemateko eta egokitasun arauak finkatzeko. Hiru formak indoeuroperazko **dwo* (edo **duwo*) zaharrari dagozkio. Kidetasuna ilunagoa da, ordea, eta egokitasun arauak finkagaitzagoak dira, IE den armenierazko *erku* forma aurreko hiru formekin alderatzen badugu. Izan ere, armenierazko *erku*-k ez du antzik latinezko *duo*, etabarrekin. Baina beste egokitasun zenbaitek *erk-* beste hizkuntza batzuetako **dw-*ri dagokiela erakusten dute. Besteak beste, IEak *dwei-* “beldur izan” erroa dauka, greziera homerikoan **δεδFoa* (δειδω [deído] idatzia), **δεδFoiKa* (δειδοικα [deídoika] idatzia) “beldur naiz” bezalako formez, edo **δFeoς* (δέος idatzia) “beldurra” bezalako izen formez, ugari ordezkaturia eta armenierak hor *erkiwl* “beldurra”, *erkeay* “beldur nintzen” ditu. Hortaz, araua, honakoa litzateke: IEko *dw-*ari armenierazko *erk-* dagokio (Meillet, 2001:39).

Modu horretan, hizkuntza isolatu ezagunenekin, ainua, burushaskia eta euskara, ahaideak bilatzeko egin diren hipotesi nagusienak aipatu ditut. Jaio berriak diren hizkuntza isolatu batzuen inguruko ikerketa batzuk ere landu dira: besteak beste, *pidgin* eta *kreoleren* kasua eta Nikaraguako keinu hizkuntzaren adibidea.

Halaber, hizkuntza hauetako bakoitzarekin (salbu eta hizkuntza sortu berriekin), hipotesi hauen gabezia nabarmendu da, metodo konparatzailea behar bezala ez erabiltzeagatik eta datu zein zehaztapen urritasunagatik.

Azken ideia hau Shibatanik azpimarratzen du:

The problem is mainly methodological. The comparative method, a most useful and successful tool in historical linguistics, relies on cognate sets, and its usefulness diminishes as the difficulty of establishing cognate sets between the languages compared increases (1990:113).

Era berean, hizkuntzen historia egiteko edota antzinagoko formak lortzeko, metodo konparatzailea ahaide ezagunak eta argiak dituzten hizkuntzen artean dela esanguratsuen aldarrikatzen du Shibatanik:

The comparative method developed where it was most successfully applicable, i.e. in the Indo-European field, where sister languages yield a large number of cognates of high transparency. But where such cognates are hard to identify, the usefulness of the comparative method diminished (1990:117).

Euskararen kasuan, inolako ahaiderik aurkitu ezina ez da ez saiatzearen ondorioa izan. Balizko etorki eta ahaideei buruzko espekulazioak ugari izan direla ikusi dugu. Lan hauen ezaugarri nabarientariko bat kalitate eskasa dela dio Trask (1995). Trakeskeria hori ustez profesionalak diren hizkuntzalari horiek euskarari buruz ikasten arduratu ez direlako da, besteak beste.

Trask euskararekin egindako konparaketa horiei guztiei “Bongo-Bongo” deitzen die, ekimen hauek, ia salbuespenik gabe, ikertzaileari atentzioa eman dion edozein hizkuntzaren eta euskararen artean alirizira egindako zenbait antzekotasunen bildumak baino ez baitira:

(...) almost all of this work is couched dismally in what we might call *Bongo-Bongo* approach: “Look, I’ve got a few Basque words here that look quite a bit like some words in Bongo-Bongo.” In other words, these enterprises, almost without exception, consist of nothing more than the collection of some random similarities between Basque and whatever other language(s) have caught the eye of the researcher (...) (Trask, 1995:66).

Izan ere, pazientzia nahiko izanik eta hiztegi handi batekin beti aurki daitezke halabeharrezko antzekotasunak edozein bi hizkuntzaren artean. Honekin nahikoa ez, eta, askotan, hitzak gaizki aipatuak dira, gaizki iruzkinduak, edo gaizki analizatuak; forma edo adiera modernoak aipatzen dira; aurreko ikertzaileek egindako hutsak kopiatu eta zabaltzen dira eta datuen iturriak ia inoiz ez dira identifikatzen. Azkenik, ia lan hauen guztien ezaugarria da ikertzaileek ez dutela duda egiten euskal hitzak arbitrarioki zatitzean eta pare bat salbuespen gorabehera, ikertzaile hauek ez dute euskara eta beste hizkuntzen arteko korrespondentzia sistematikoak identifikatzeko ahalegin txikiarik ere egiten (Trask, 1995).

Hala ere, hasierako iturrira bueltatuz, Campbell (2011:37) metodo konparatzailea erabiliz berriki hizkuntza isolatuen ahaideak bilatu diren adibide batzuk dakartza. Hona hemen: *Bora-Familia Witotoan* (Bora-Witotoan) (Aschmann 1993); *Harakbmut-Katukinan* (Adelaar 2000); *Lule-Vilela* (Lule eta Vilela) (Viegas Barros 2001); *Lengua occidental de las Islas Torres* (*West Torres Island*) eta *Pama-Nyungan* (Bower 2007); *Yuchi* (*Sioux* familian) (Rankin 1998).

Ondorioz, suposa liteke, hizkuntza isolatu hauekin gertatu den bezala, bai metodo konparatzailea bai beste metodoren bat erabiliaz, harreman genetiko gehiago ager litekeela. Hori bai, beti ere metodoak metodo, modu zuzenean aplikatuta.

AIPATUTAKO BIBLIOGRAFIA

- Alonso de la Fuente, J.A. (2006). El Burushaski, ¿una lengua aislada?. *Revista Española de Lingüística*. 35, 2, 551-579.
- Blažek, V., Bengston, J.D. (1995). Lexica Dene-Caucasica. *Central Asiatic Journal*. 39,1, 11-50.
- Bouda, K. (1948). Baskisch und Kaukasisch. *Zeitschrift für Phonetik*. 2.
- Bouda, K. (1949). *Baskisch-Kaukasische Etymologien*. Heidelberg: Carl Winter.
- Bouda, K. (1950). Die Sprache der Buruscho. *Eusko-Jakintza*. 4, 37-50.
- Bouda, K. (1954). Buruschaski Etymologien (I). *Orbis*. 3, 228-230.
- Bouda, K. (1951). L'euskaro-caucasique. *Homenaje a D. Julio de Urquijo, vol. III*. Donostia: Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País. 207-232.
- Bouda, K. (1952). Neue Baskisch-kaukasische Etymologien, *Acta Salmanticensia. Filosofía y Letras*. 5(4), 3-6.
- Bouda, K. (1964). Buruschaski Etymologien (II). *Orbis*. 13, 604-609.
- Campbell, L. (2011). La investigación histórica de las lenguas aisladas, o ¿es raro el vasco?. In J. A. Lakarra, J. Gorrochategui & B. Urgell (arg.). *Koldo Mitxelena Katedraren II. Biltzarra*. Bilbo: UPV/EHU, 23-40.
- Čašule, I. (1998). *Basic Burushaski Etymologies*. Múnich: Lincom Europa.
- Čašule, I. (2003a). Burushaski Names of Body Parts of Indo-European Origin. *Central Asiatic Journal*. 47,1, 15-74.
- Čašule, I. (2003b). Evidence for the Indo-European Laryngeals in Burushaski and Its Genetic Affiliation with Indo-European. *JIES*. 31,1-2, 21-86.
- Čašule, I. (2004). Burushaski-Phrygian Lexical Correspondences in the Field of Myth, Ritual, Burial and Onomastics. *Central Asiatic Journal*. 48,1, 49-104.
- Chirikba, V, A. (1985). Baskiskij i severokavkazskie jazyki [Basque and the North Caucasian languages]. *Drevnjaja Anatolija [Ancient Anatolia]*. (arg.) B.B. Piotrovskij. Mosku: Nauka. 95-105.

- Dumézil, G. (1933). *Caucasien du nord et basque. Introduction à la grammaire comparée des langues caucasiennes du nord*. Paris: Bibliothèque de l'Institut français de Léningrad. Vol. XIV, 123-149.
- Ethnologue. (2015). www.ethnologue.com/. www.ethnologue.com/subgroups/language-isolate. www.ethnologue.com/statistics/family.
- Greenberg, J. (1963). Some universals of grammar with a particular reference to the order of meaningful elements. In J. Greenberg (ed.). *Universals of Language*. Cambridge, Mass.: MIT Press, 73-113.
- Gómez-Moreno, M. (1949). La escritura ibérica y su lenguaje. *Misceláneas: Historia, arte, arqueología*. Madrid: Consejo Superior de Investigaciones Científicas, 257-281.
- Gorrotxategi, J. (1987b). Die vorrömische Onomastik Aquitaniens. *Beiträge zur Namenforschung, Neue Folge*. 22, 343-355.
- Gorrotxategi, J. (1995). The Basque language and its neighbors in Antiquity. *Towards a History of the Basque language*. In J. I. Hualde, J. Lakarra, L. Trask. Amsterdam: John Benjamins Publishing Company.
- Humboldt, W. (1821). *Prüfung der Untersuchungen über die Urbewohner Hispaniens vermittelt der Vaskischen Sprache*. Itzul. F. Echebarria. 1959. *Primitivos pobladores de España y lengua vasca*. Madrid.
- Lafon, R. (1933). Basque et langues kartvèles: À propos des postpositions basques formées au moyen de *-gan*. *Revista Internacional de los Estudios Vascos*. 24, 150-172.
- Lafon, R. (1944). *Le système du verbe basque au XVIe siècle*. 2 liburuki. Bordele. Repr., Donostia-San Sebastián: Elkar. 1980. Vol. 1: Eraskina: "Quelques correspondances morphologiques entre le basque et les langues caucasiennes". 527-535.
- Lafon, R. (1948). Correspondances basques-caucasiennes. *Eusko-Jakintza*. 2, 359-370.
- Lafon, R. (1951). Concordances morphologiques entre le basque et les langues caucasiennes 1. *Word*. 7, 227-244.
- Lafon, R. (1952a). Le basque et les langues caucasiennes (suite et fin). *Word*. 8, 80-94.
- Lafon, R. (1952b). Études basques et caucasiennes. *Acta Salmanticensia, Filosofía y Letras*. 5 (2), 5-91.

- Lafon, R. (1957). Le géorgien et le basque sont-ils des langues parentes?. *Bedi Kartlisa*. 26-27.
- Lafon, R. (1967). La linguistique basque et caucasique. *Revue de l'enseignement supérieur*. Paris. 3-4, 56-66.
- Lafon, R. (1968). Pour la comparaison du basque et des langues caucasiennes, I: Les indices de personne dans la conjugaison basque. *Bedi Kartlisa*. 28, 13-26.
- Luchaire, A. (1877). *Les origines linguistiques de l'aquitaine*. Véronèse.
- Meillet, A. (1925). *La méthode comparative en linguistique historique*. Paris: Honoré Champion.
- Meillet, A. (2001). *Metodo konparatzailea hizkuntzalaritza historikoan*. ("Koldo Mitxelena" Katedraren Argitalpenak, 2). Bilbo: UPV/EHU.
- Meir, I., et al. (2003). Emerging sign languages. In M. Marschark, P. E. Spencer (arg.). *Oxford Handbook of Deaf Studies, Language, and Education*. Oxford: Oxford University Press. Volume 2.
- Michelena, K. (1954a). De onomástica aquitana. *Pirineos*. 10, 409-458. Repr. in Michelena. 1985. 409-445.
- Michelena, K. (1955). Cuestiones relacionadas con la escritura ibérica. *Emerita*. 23, 265-284. Repr. in Michelena, 1985, 357-370.
- Michelena, K. (1958). Hispánico antiguo y vasco. *Archivum*. 8, 33-67. Repr. in Michelena. 1988. vol. I, 99-106.
- Michelena, K. (1964b). *Sobre el pasado de la lengua vasca*. Donostia: Auñamendi, Repr. in Michelena. 1988. vol. I, 1-73.
- Michelena, K. (1973). Sobre la posición lingüística del ibérico. *Archivo Español de Arqueología (Homenaje a don Pío Beltrán)*. 7, 147-153. Repr. in Michelena. 1985. 334-340.
- Michelena, K. (1976). Ibéricoen. *Actas del I Coloquio sobre lenguas y culturas prerromanas de la Península Ibérica*. Salamanca: Univ. de Salamanca. 353-361, Repr. in Michelena. 1985. 379-387.

- Michelena, K. (1979). La langue ibère. *Actas del II Coloquio sobre lenguas y culturas prerromanas de la Península Ibérica*. 23-29. Salamanca: Univ. de Salamanca. Repr. in Michelena. 1985. 341-356.
- Michelena, K. (1985). *Fonética Histórica Vasca*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Miller, R. (1983). Book notice on Patrie 1982. *Language*. 39, 447-8.
- Patrie, J. (1982). *The genetic relationship of the Ainu language*. Hawaii: University Press of Hawaii.
- Pinker, S. (1994). *Hizkuntza-sena*. Bilbao: Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Shibatani, M. (1990). *The languages of Japan*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Schuchardt, H. (1908). *Die iberische Deklination*. Viena.
- Schuchardt, H. (1913). Baskisch-hamatische Wortvergleichen. *Revista Internacional de los Estudios Vascos*. 7, 289-339.
- Senghas, A. (1995). Children's contribution to the birth of Nicaraguan Sign Language. *Ph.D. Dissertation*. Massachusetts: Institute of Technology.
- Senghas, A. (2004). Children Creating Core Properties of Language: Evidence from an Emerging Sign Language in Nicaragua. *Science*. 305, 1779-1782.
- Street, J. (1983). Review of Patrie 1982. *Journal of the Association of Teachers of Japanese*. 17, 2, 192-204.
- Tombetti, A. (1925). *Origini della lingua basca*. Memorie della R. Accademia delle Scienze dell'Istituto di Bologna. Bologna.
- Trask, R. L. (1995). Origin and relatives of the Basque language: Review of the evidence. *Towards a History of the Basque language*. In J. I. Hualde, J. Lakarra, L. Trask. Amsterdam: John Benjamins Publishing Company.
- Trask, R. L. (1997). *The history of Basque*. Londres: Routledge.


- Uhlenbeck, Ch. C. (1923). *Over een mogelijke verwantschap van het Baskisch met de palaeo-kaukasische talen*. Amsterdam.
- Uhlenbeck, Ch. C. (1924). De la possibilité d'une parenté entre le basque et les langues caucasiques. *Revista Internacional de los Estudios Vascos*. 15, 565-588.
- Uhlenbeck, Ch. C. (1940-41). Vorlateinische indogermanische Anklänge im Baskischen. *Anthropos*. 35/36, 202.
- Uhlenbeck, Ch. C. (1946). *Gestaafde en vermeende affiniteiten van het Baskisch*, Amsterdam. Frantsesez: Affinités prouvées et présumées de la langue basque. *Revue d'Etudes Basques*. 1, 171, 1947.
- Uhlenbeck, Ch. C. (1947). La langue basque et la linguistique générale. *Lingua*. 1, 59-76.
- Vennemann, T. (1994a). Linguistic reconstruction in the context of European prehistory. *Transactions of the Philological Society*. 92 (2), 215-284.
- Vogt, H. (1942). La parenté des langues caucasiques. *Norsk Tidsskrift for Sprogvidenskap*. 9, 321-338.
- Vogt, H. (1955). Le basque et les langues caucasiques. *Bulletin de la Société de Linguistique de Paris*. 51, 121-147.

Wikipedia: www.wikipedia.org/wiki/Ainu_people.


6. ERANSKINA

6.1. Ainua (*Wikipedia*)

(1)




(2) Yukagir



6.2. Burushaskia (*Ethnologue*, 2015)

(3)



(4)

